

<b>JESUSEN BIHOTZAREN UDAL EGOITZAKO ARTEZKARITZA-KONTSEILUAK 2017KO URRIAREN 31N EGINDAKO OHIKO BATZARREKO AKTA</b>	<b>ACTA DE LA REUNION ORDINARIA CELEBRADA POR EL CONSEJO RECTOR DE LA RESIDENCIA MUNICIPAL SAGRADO CORAZON, EL DIA 31 DE OCTUBRE DE 2017</b>
--	--

**BERTARATU DIRENAK**  
**PRESIDENTEA**

**ASISTENTES**  
**PRESIDENTE**

**Dña. Elena Coria Yanguas and.**

**BATZARKIDEAK**

**VOCALES**

Dña. Keltse Eiguren Alberdi and.  
D. Koldo Iturbe Mendilibar jn.  
D. Alvaro Gonzalez Perez jn.  
D. Joseba Arregi Martinez jn.  
Dña. Irantzu Uriarte Gómez and.  
Dña. Raquel González Díez-Andino and.  
D. Miguel Ibabe Botella jn.  
Dña. Susana de Cos Yañez and.  
Dña. Susana Andollo González and.  
D. Enrique Olaso García jn.  
Dña. Paula Amieva Clemente and.  
D. Ibon Rodriguez Larrinaga jn.  
Dña. Maite Arraiza Aramendia and.  
Dña. Nerea Guijarrubia Garcia and.  
Dña. Teresa Escalante Reina and.  
D. Santiago Sainz Robles jn.

**IDAZKARIA**

**SECRETARIA**

**Dña. Arantza Minguez Trascasa and.**

Aipatutako kideak etorri dira, eta Elena Coria Yanguas andrea presidente dela, batzarra 08:30an hasi da.

Con la presencia de los vocales reseñados al margen, y bajo la presidencia de Dña. Elena Coria Yanguas dió comienzo la reunión a las 08:30 horas.

**25.- Aurreko bilerako akta onestea**

Aurreko batzarreko akta onetsi da.

**25.- Aprobación del acta de las reunión anterior**

Se aprueba el acta de la reunión anterior.

## 26- 2017rako ordainsarien %1 gehitzea eta Lanpostuen Zerrendaren aldaketa onesteko proposamena

Presidenteak jakinarazi duenez, Artezkaritza Kontseiluko kideei 2017rako ordainsarien %1 gehitzea eta Lanpostuen Zerrendaren aldaketa onesteko proposamena igorri zaie.

Bidezko azalpenak eman ondoren, presidenteak proposamenaren bozketarako deia egin du. Hona hemen emaitzak: EAJren aldeko 6 boto, PSEren aldeko boto 1, PPren aldeko 3 boto, GUK-en aldeko 3 boto, EH BILDUren aldeko 3 boto eta HERRITARREN abstentzio 1.

Horrenbestez, eta presidenteak proposatuta, hauxe erabaki da gehiengoz:

### ERABAKIA

Lehenengoa.- Getxoko Udal Egoitza tokiko erakunde autonomoaren zerbitzutan dauden langileen ordainsariak, ordainsari kontzeptu guztietan, % 1ean gehitzea. Gehikuntza ondoko irizpideen arabera egingo da:

- Oinarrizko ordainsariak: Horien barruan soldataren osagarriak eta aparteko ordainsarien hirurtekoak daude. Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko legeek ezartzen dute zenbatekoa
  - Soldata: Soldataren zenbatekoa sailkapen-taldea edo azpitaldearen arabera ezartzen da eta 2017rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko ekainaren 27ko 3/2017 Legearen 18.bost artikuluan zehazten da.
  - Hirurtekoak: zenbateko bera izango da azpitalde guztientzat eta lan egindako hirurteko bakoitzeko ordaintzen da. Oinarrizko soldata bezala, 2017rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko ekainaren 27ko

## 26.- Propuesta de aprobación del incremento retributivo del 1% para 2017 y modificación de la Relación de Puestos de Trabajo

La Presidenta informa que se ha remitido a los miembros del Consejo Rector la propuesta de acuerdo en relación al incremento retributivo del 1% para 2017 y modificación de la Relación de Puestos de Trabajo.

Tras las explicaciones pertinentes la Presidenta somete a votación la propuesta que obtiene el siguiente resultado: 6 votos a favor del PNV, 1 voto a favor del PSE, 3 votos a favor del PP, 3 votos a favor de GUK, 3 votos a favor de EH BILDU y 1 abstención de CIUDADANOS.

En consecuencia, y a propuesta de la Presidenta, se acordó por mayoría el siguiente

### ACUERDO

Primero.- Incrementar las retribuciones del personal al servicio del O.A.L Residencia Municipal de Getxo, en todos los conceptos retributivos en un 1%. El incremento se realizará de acuerdo con los siguientes criterios:

- Retribuciones Básicas: Dentro de ellas están comprendidas los componentes de sueldo y trienios de las pagas extraordinaria. Su cuantía se fija por las leyes de Presupuestos Generales del Estado
  - Sueldo: Su cuantía viene determinada por el grupo o subgrupo de clasificación y está determinada en el artículo 18.cinco de la ley 3/2017 de 27 de junio de Presupuestos Generales del Estado y se ha incrementado en un 1%
  - Trienios: consisten en una cantidad, que será igual para cada Subgrupo, por cada tres años de servicio, al igual que el Salario Base, su cuantía se determina en el artículo 18.cinco de la ley 3/2017, de 27 de junio, de

3/2017 Legearen 18.bost artikuluan xedatu da hirurtekoen zenbatekoa eta %1 gehitu da 2016. urtekoarekin alderatuta.

Presupuestos Generales del Estado para el año 2017 y se ha incrementado en un 1% respecto de las del año 2016.

Taldea /Azpitaldea 7/2007 Legea	Soldata (€)	Hirurtekoak (€)
Grupo / Subgrupo Ley 7 / 2007	Sueldo (euros)	Trienios (euros)
A1	13.576,32	522,24
A2	11.739,12	425,76
C1	8.814,12	322,20
C2	7.335,72	219,24
E (30/1984 Legea) eta talde profesionalak (7/2007 Legea)/E ( Ley 30 / 1984 ) y Agrupaciones Profesionales ( Ley 7 / 2007 )	6.714,00	165,00

- Getxoko Udal Egoitza tokiko erakunde autonomoan lan egiten duten langileek, 2017ko ekaineko eta abenduko aparteko ordainketetako bakoitzean, soldata eta hirurteko kontzeptuen pean, ondoko zenbateko hauek jasoko dituzte:
- Los empleados al servicio del O.A.L Residencia Municipal de Getxo, en cada una de las Pagas Extras de los meses de junio y diciembre en el año 2017, percibirán concepto de sueldo y trienios, los importes que a continuación se detallan.

Taldea /Azpitaldea 7/2007 Legea	Soldata (€)	Hirurtekoak (€)
Grupo / Subgrupo Ley 7 / 2007	Sueldo (euros)	Trienios (euros)
A1	698,13	26,85
A2	713,45	25,87
C1	634,82	23,19
C2	605,73	18,09
E (30/1984 Legea) eta talde profesionalak (7/2007 Legea)/E ( Ley 30 / 1984 ) y Agrupaciones Profesionales	559,50	13,75

( Ley 7 / 2007 )		
------------------	--	--

Ordainsari osagarriak: horiekin lanpostuen ezaugarri bereziak ordaintzen dira, lanbide-karrera edo jarduera, errendimendua edo langileak lortutako emaitzak. Haien zenbateko globala Artezkaritza Kontseiluak finkatuko du estatuak jartzen dituen gutxieneko eta gehieneko mugen barruan.

Retribuciones Complementarias: son las que retribuyen las características especiales de los puestos de trabajo, la carrera profesional o el desempeño, rendimiento o resultados alcanzados por el empleado. Su cuantía global será fijada por Consejo Rector dentro de los límites máximos y mínimos que se señalen por el Estado .

- Lanpostu-mailako osagarria: Lanpostuaren mailaren arabera eta osagarriaren zenbatekoa urtero ezarriko da Euskal Autonomi Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan; aurrekontu horiek % 1 gehitu dira 2017 ekitaldirako.
- Osagarri berezia: zailtasun tekniko bereziko baldintzak ordaintzen ditu, baita dedikazioa, erantzukizuna, bateraezintasuna, arriskua edo nekagarritasuna ere. Lanpostuen zerrendan ezartzen da horren zenbatekoa. Irizpide horiek aplikatuz gero zenbatekoak aldatu behar dira; lanpostuen zerrendan jasotako zenbatekoak. Beraz, tokiko erakunde autonomoaren estatutuetan xedatutakoaren arabera, Artezkaritza Kontseiluari dagokio onespena egitea eta % 1eko gehikuntza egitea.
- Antzinasunezko osagarri pertsonala eta osagarri pertsonal iragankorra: Getxoko Udal Egoitza tokiko erakunde autonomoko langile batzuek horiek jaso izan dituzte, 2012ko uztailaren 18an Artezkaritza Kontseiluak hartutako erabakiaren bidez onartutako Ordainsarien Egokitzearen ondorioz. Erabaki horrek Getxoko Udal Egoitza erakunde autonomoaren zerbitzutan zeuden langileen lan baldintzen hitzarmen kolektiboan jasotako xedapenei egokitu zizkien aurretik jasotzen ari ziren ordainsari-
- Complemento de Destino: Correspondiente al nivel del puesto que se desempeñe, cuya cuantía se fijará anualmente en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, y que para este ejercicio 2017 se han visto incrementados en un 1%.
- Complemento específico: retribuye las condiciones de especial dificultad técnica, dedicación, responsabilidad, incompatibilidad, peligrosidad o penosidad y su cuantía viene fijada en la Relación de Puestos de Trabajo. La aplicación de estos criterios supone un cambio en las cuantías que tiene reflejo en la RPT, por lo que de conformidad con lo dispuesto en los Estatutos del O.A.L corresponde al Consejo Rector su aprobación e incremento en un 1%.
- Complementos Personales de Antigüedad y Transitorio: Parte del personal al servicio del O.A.L Residencia Municipal de Getxo viene percibiendo como consecuencia de la Adecuación Retributiva aprobada mediante acuerdo del Consejo Rector de fecha 18 de julio de 2012 . Dicho acuerdo adecuaba a las disposiciones recogidas en el Convenio Colectivo de las condiciones de Trabajo del personal al servicio del O.A. Residencia Municipal de Getxo los conceptos retributivos que

kontzeptuak. Aipatutako HITZARMENAREN 85. artikuluan, aurreikusi zen osagarri horiek jasoko zirela ordainsari-sistema berria aplikatzeagatik, aurretik jasotzen ziren ordainsariak murrizten ziren kasuetan. Osagarri horiek eguneratu ahal dira; beraz, indarreko zenbatekoei % 1eko gehikuntza aplikatu behar zaie. % 1eko gehikuntza eginda, hauek izango dira antzinasunezko osagarri pertsonalaren indarreko zenbatekoak azpitalde bakoitzarentzat:

anteriormente se venían percibiendo. El artículo 85 del citado CONVENIO preveía la percepción de estos complementos para aquellos supuestos en los que por aplicación del nuevo sistema retributivo se produjera una minoración sobre las retribuciones que se vinieran percibiendo anteriormente. Estos complementos son actualizables por lo que corresponden aplicarles un incremento del 1% a las cuantías vigentes. Las cuantías de Complemento Personal de Antigüedad vigentes para cada uno de los subgrupos con el incremento operado del 1% serán las siguientes:

Talde / Azpitaldea 7/2007 Legea Grupo / Subgrupo Ley 7 / 2007	Hirurtekoak OP Trienios CP
A1	16,61
A2	17,62
C1	15,90
C2	18,02
Talde profesionalak/ Agrupaciones profesionales	19,22

Bigarrena.- Lanpostuen Zerrenda alda dadin onartzea, aipatu erabakiak aplikatu ahal izateko.

Segundo.- Aprobar la modificación de la RPT en orden a la aplicación de dichos acuerdos.

Hirugarrena.- Lehendakariari ahalmena ematea erabakiak betearazteko.

Tercero.- Facultar al Presidente para la ejecución de los acuerdos.

Laugarrena.- Erabaki hau BAO n argitaratzea, baita aurreko bigarren puntuaren ezarritakoaren arabera aldatuko den Lanpostuen Zerrenda ere.

Cuarto.- Publicar el presente acuerdo, juntamente con la RPT modificada por el contenido del punto segundo anterior, en el BOB.

**27.- Ordainketaren epeak betetzearen berri ematea: 2017ko bigarren eta hirugarren hiruhilekoak.**

Gure hornitzaileei legeriak ezartzen dituen epeetan 2017ko bigarren eta hirugarren hiruhilekoko fakturak ordaintzeari buruzko txostenak bidali zaizkie Batzar Artezkariaren kideei.

GUK taldetik, hiruhileko baten eta bestearen artean batez besteko ordainketa aldien ehunekoen desberdintasunari buruz galdetu du Enrique Olasok.

Presidenteak azaldu duenez, kontabilitateaz eta ordainketez arduratzen den lanpostutik urte berean hiru pertsona igaro dira. Pertsona horiek uko egin diote egoitzarekin zeukaten kontratuari, beste erakunde batzuetatik eskaintzak jaso ondoren.

Kontseiluko idazkariak azaldu du faktura guztien kasuan ordainketa aldiak bete egin direla. Hala ere, 2017ko hirugarren hilekoko txostenean epez kanpoko faktura bat ageri da, 42,94 eurokoa. Epez kanpoko kontabilitate gai bat da; izan ere, Kutxabankeko komisi baten ondoriozko kontu kargu bati dagokio; bankuak bertatik kendu zuen baina epez kanpo erregistratu eta kontabilizatu zuen.

Batzarra jakitun geratu da.

**28.- 2017ko uztailleko, abuztuko, iraileko eta urriko egoiliarren errolden berri ematea.**

**2017KO UZTAILEKO ERROLDA**

**I.- SARRERAK ETA ALTAK**

Ez dago aldaketarik erroldan.

Plaza itunduetako bost sarrera berri daude.

**II.- HERIOTZAK ETA BAJAK**

Ez dago aldaketarik erroldan.

**27.- Dación de cuentas sobre el cumplimiento de los plazos de pago: Segundo y tercer trimestre de 2017**

Se ha remitido a los miembros del Consejo Rector los informes correspondientes al abono de las facturas a nuestros proveedores en los plazos que marca la legislación del segundo y tercer trimestre del año 2017.

Desde GUK, Enrique Olaso pregunta por la diferencia de los porcentajes de los períodos medios de pago entre un trimestre y otro.

La Presidenta explica que por el puesto de trabajo que se encarga de la contabilidad y de los pagos han pasado tres personas en un mismo año. Estas personas han renunciado al contrato que tenían con la Residencia ante otras ofertas de otras Instituciones.

La Secretaria del Consejo explica que se han cumplido los plazos de pago en todas las facturas. No obstante, en el informe del tercer trimestre de 2017, aparece una factura fuera de plazo por importe de 42,94.-€. Es un tema de contabilización fuera de plazo ya que se corresponde a un cargo en cuenta por una comisión de Kutxabank que el banco descontó de la misma, pero que se registró y contabilizó fuera de plazo.

El Consejo quedó informado.

**28.- Dación de cuentas del Padrón de residentes correspondiente a los meses de julio, agosto, septiembre y octubre de 2017**

**PADRÓN DE JULIO 2017**

**I - INGRESOS Y ALTAS**

No hay movimientos en el padrón.

Hay cinco ingresos nuevos de plazas convenidas.

**II - FALLECIMIENTOS Y BAJAS**

No hay movimientos en el padrón.

Bi baja daude plaza itunduetan heriotzagatik.

Hay dos bajas en plazas convenidas por fallecimiento.

#### 2017KO ABUZTUKO ERROLDA

#### PADRÓN DE AGOSTO 2017

##### I.- SARRERAK ETA ALTAK

Ez dago aldaketarik erroldan.

##### I - INGRESOS Y ALTAS

No hay movimientos en el padrón.

Plaza itunduetako bi sarrera berri daude.

Hay dos ingresos nuevos de plazas convenidas.

##### II.- HERIOTZAK ETA BAJAK

Ez dago aldaketarik erroldan.

##### II - FALLECIMIENTOS Y BAJAS

No hay movimientos en el padrón.

Lau baja daude plaza itunduetan heriotzagatik.

Hay cuatro bajas en plazas convenidas por fallecimiento.

#### 2017KO IRAILEKO ERROLDA

#### PADRÓN DE SEPTIEMBRE 2017

##### I.- SARRERAK ETA ALTAK

Ez dago aldaketarik erroldan.

##### I - INGRESOS Y ALTAS

No hay movimientos en el padrón.

##### II.- HERIOTZAK ETA BAJAK

Erroldan baja bat dago heriotzagatik.

##### II - FALLECIMIENTOS Y BAJAS

Hay una baja por fallecimiento en el padrón.

Hiru baja daude plaza itunduetan, bi heriotzagatik eta bat lekualdaketagatik.

Hay tres bajas en plazas convenidas, 2 por fallecimiento y 1 por traslado.

#### 2017KO URRIKO ERROLDA

#### PADRÓN DE OCTUBRE 2017

##### I.- SARRERAK ETA ALTAK

Sarrera bat erroldan dago.

##### I - INGRESOS Y ALTAS

Hay un ingreso en el padrón.

Plaza itunduetako hiru sarrera berri daude.

Hay tres ingresos nuevos de plazas convenidas.

##### II.- HERIOTZAK ETA BAJAK

Bi baja daude erroldan heriotzagatik.

##### II - FALLECIMIENTOS Y BAJAS

Hay dos bajas en el padrón por fallecimiento.

Bi baja daude plaza itunduetan heriotzagatik.

Hay dos bajas en plazas convenidas por fallecimiento.

## 29.- Erreguak eta galderak

Presidenteak jakinarazi duenez, Adinekoak Omentzeko Astea azaroaren 12tik 19ra ospatuko da. Egoitzako Artezkaritza Kontseiluko kideen bazkari tradizionala azaroaren 15ean egingo da, asteazkena, 13:30ean. Alderdi politiko bakoitzeko kide bat gonbidatuko da. Bertaratutakoei mesedez eskatu zaie azaroaren 10a baino lehen bazkarira joango diren ala ez jakinarazteko.

Artezkaritza Kontseiluko kideen artean aste horretako programa banatu da.

Bestalde, presidenteak jakinarazi du une honetan obren proiektua idazten ari direla, eta abendurako bukatuta egon beharko dela. Ondoren, 2018ko lehen hiruhilekoan, aipatutako obrak egitea adjudikatzeko izapidetze faseari ekingo zaio.

GUK taldetik, Susana Andollok galdetu du ea obra horiek soilik etxebizitza komunitariorako izango diren. Presidenteak ezetz erantzun du, egoitza osoa hartzen dutela.

Udal Eguneko Arreta Zerbitzuari dagokionez, Kontseiluari jakinarazi zaio abiaraztea atzeratu egin dela gizarte langileek ekarpen gehiago egin nahi izan dituztelako. Hala ere, azarorako abiaraztea espero da.

Aztertzeko gai gehiagorik ez dago, eta batzarra goian adierazitako eguneko 08:45ean bukatu da. Beraren emaitzarekin akta hau egin da. Aktaren edukiaren fede ematen dut, kontseiluko idazkari naizen aldetik.

## 29.- Ruegos y Preguntas

La Presidenta informa de que la Semana Homenaje a nuestros mayores se va a celebrar entre los días 12 y 19 de noviembre. La tradicional comida de los miembros del Consejo Rector en la Residencia tendrá lugar el miércoles 15 de noviembre a las 13:30 horas. Se invita a un miembro por cada partido político. Se ruega confirmación para el día 10 de noviembre.

Se reparte el programa de dicha semana entre los miembros del Consejo Rector.

Por otro lado, la Presidenta informa que actualmente se está redactando el proyecto de las obras que tendrá que estar terminado para diciembre. Posteriormente, durante el primer trimestre de 2018, dará comienzo la fase de tramitación para la adjudicación de la ejecución de las obras.

Desde GUK, Susana Andollo pregunta si las obras son sólo para la vivienda comunitaria. La Presidenta responde que no, que está incluida toda la Residencia.

En relación al Servicio de Atención Diurna municipal se informa al Consejo de que su puesta en marcha se ha retrasado debido a que las Trabajadoras Sociales han querido hacer alguna aportación más. No obstante, se espera su puesta en marcha para noviembre.

No habiendo mas asuntos que tratar, se levantó la sesión a las 08:45 horas del día de la fecha señalada en el encabezamiento, extendiéndose con su resultado la presente Acta, de cuyo contenido doy fe, como Secretaria del Consejo.

  
PRESIDENTEA  
LA PRESIDENTA



  
IDAZKARIA  
LA SECRETARIA